



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## PRENTSARAKO OHARRA

# ALDUNDIAK 140 HEKTAREAKO “SEGURTASUNEZKO GUNEA” DISEINAU DAU ARTXANDAN, EHIZEA MUGATZEKO

- **Elena Unzueta Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako foru diputatuak Bizkaiko Batzar Nagusietan egin dauen agerraldian jakinarazo dauenez, Gaztelugatxeko San Joanerako bisita protokolo barria aztertzen ari da Aldundia.**

(Bilbon, 2020ko bagilaren 1ean). Elena Unzueta Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako foru diputatuak Bizkaiko Batzar Nagusietan gaur adierazo dauenez, Artxandako biztanleek hasieran planteautako diseinuaren desbardina izango dan “diseinu barria” egingo dau Aldundiak, Artxanda mendian “137,78 hektareako segurtasunezko gunea” sortzeko, gunee horretan ehizea mugatzeko. Lur horreek Bilboko eta Sondikako udalerrietan dagoz, BI-3741 errepidearen ardatzaren eta San Rokeko baseleizaraino zabaltzen dan beste azalera baten inguruan.

Elkarrekin Bizkaia taldeak ekarri dau gai hori Bizkaiko Batzarretako Iraunkortasunerako eta Ingurune Naturalerako Batzordera, Artxanda Plataforma izeneko Auzokideen Alkartean, Bizkaiko Batzarretako informaziozko batzorde batean egin ebazan eskarien ostean Bizkaiko Batzar Nagusiek hartu eben konpromisoa zein egoeratan dagon jakiteko. 2018ko martiaren 5ean, Bizkaiko Batzarretako osokoak aho batez onetsi eban Foru Gobernuari Artxandan “segurtasunezko gunee” bat sortzea eskatzen eutsan arauz besteko proposamena. Gunee horretan ehizea debekauta egongo litzateke, izan be, iraganean, auzokideek behin baino gehiagotan adierazo eben “bildurra pasetan” ebela, inguru horretan egiten ziran ehizaldiak zirala eta.

Aldundiko arduradunak azaldu dauenez, Aldundiak indarrean dagon legetasunera doitu dau segurtasunezko gunee horren sorrerea, 1388/2020 foru aginduaren bitartez. Inguru horrek ez ditu izango auzokideek hasieran planteetan ebezan ezaugarri berberak. Dana dala, alarma egoera dala eta bat-batean geldik geratu dan Aldundiaren proposamena aste honetan bertan “aktibauko da barriro”. Helburua hasierako proposamenaren berbera da: Artxanda inguruan dagozan “personene eta ondasunen segurtasuna bermatzea”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

Oposizinoako taldeak pozik agertu dira neurriaren aurrean, baina foru agindua “berandu” ailegetan dala esan dabe, auzokideak “2016tik” ari diralako jarduketa hori eskatzen, Elkarrekin Bizkaia Xabier Benitok gogoratuazo dauen moduan. Iratxe Arriola EH Bilduko ordezkariak adierazo dauenez, Artxandako biztanleek “babes faltea eta kasurik egin ez izana” jasan dabe Aldundiaren aldetik. “Ulergarria” da administrazio arloko izapideak luzatzea, “baina ezin leiteke justifikau emoten ari diran pausuen ganeko informaziorik ez emotea herritarrei”. Unzuetak ukatu egin dau hori. “Denpora horretan guztian hartu-emonak eta bilerak euki doguz”, esan dau.

## ZUGATZAK MOZTEA JATAKO HONDAKINDEGIAREN ONDOAN

Beste alde batetik, Aldundiko arduradunak adierazo dauenez, Jatako hondakindegia ondoan dagozan lurzati bitan zugatzak mozteko baimena “geratu” egin da. Elkarrekin Bizkaia taldeko Xabier Benitok gogoratuazo dauenez, maiatzaren erdian Ekologistak Martxan alkarteak, lindanearen kutsadura dala eta salaketa jasan dauen hondakindegi horren inguruko lurren mobimendurako eta zugatzen mozketarako lanek eragiten eben “ingurumen arloko arriskuaren” barri emon eban. Batzordekidearen berbetan, talde ekologistak adierazo ebanez, gai kutsatzaile horren presentziak eragina euki eikean egurra mozten, manipuletan, garraiatzen eta ondorengo erabileretan arituko ziran beharginengan.

Unzuetak azaldu dauenez, bere Sailak aurretiazko txostena eskatu deutso Eusko Jaurlaritzari, une honetan “geldik” dagozan beharrak egiteko enpresek “babes neurriren bat” hartu behar ete daben jakiteko; “gaur egun, txosten hori oraindino heldu barik dau”.

## BISITETARAKO MUGA BARRIAK GAZTELUGATXEN

Elkarrekin Bizkaia taldeak egindako galderari erantzunez, Elena Unzuetak iragarri dau Aldundiak ez dauela aplikauko alarma egoerea ezarri aurretik bere sailak iragarri eban “eguneko 3.024 personako” bisiten mugea. Gizarte arloko distantziaren ganeko neurriak dirala eta, Aldundiak neurri hori “balio barik” itzi behar izan dau, eta agintzen diran osasun arloko neurriak errespetauko dauen Gaztelugatxeko San Joango Baseleizara sartzeko beste planteamentu bat



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

aztertzen ari da. Unzuetak aurreratu dauenez, teknikariak aztertzen ari diran neurriak “mugatzaileagoak” izango dira.

Horrez gain, Unzuetak esan dau, baita be, alarma egoerea dala eta, Aldundiak nekazari profesionalak lehenetsi behar izan dituala profesionalak ez diranen aurrean, basurdeek Bizkaiko ustiapenetan eragin dituen kalteen ziurtapenerako eta estaldurarako ohiko prozeduren balorazioetan. Halan da be, adierazo dauenez, normaltasuna berreskuratzen dogunean, aurkeztu diran salaketa “guztiei” emongo jake arretea, “baina horrek ez dau esan gura ustiapen guztiek Aldundien laguntzen onuradun izango diranik”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## NOTA DE PRENSA

# LA DIPUTACIÓN DISEÑA UNA “ZONA DE SEGURIDAD” EN ARTXANDA DE 140 HECTÁREAS PARA RESTRINGIR LA CAZA

- La diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, informa, en una comparecencia en las Juntas Generales de Bizkaia, que la Diputación estudia un nuevo protocolo de visitas para San Juan de Gaztelugatxe.

(Bilbao, a 1 de junio de 2020). La diputada de Sostenibilidad y Medio Natural, Elena Unzueta, ha informado hoy en las Juntas Generales de Bizkaia, que la Diputación realizará un “nuevo diseño”, diferente al planteado inicialmente por los vecinos de Artxanda, para crear “una zona de seguridad de 137,78 hectáreas” en el monte Artxanda en donde restringir la actividad cinegética. Dichos terrenos se ubican en los términos municipales de Bilbao y Sondika, alrededor del eje de la carretera BI-3741 y de otra superficie que se extiende hasta la ermita de San Roque.

Elkarrekin Bizkaia ha trasladado este asunto a la comisión de Sostenibilidad y Medio Natural de la Cámara vizcaína para conocer en qué momento se encontraba el compromiso contraído en las Juntas Generales de Bizkaia a raíz de las peticiones de la Asociación Vecinal Plataforma Artxanda, realizadas en una comisión informativa en el Parlamento de Bizkaia. El 5 de marzo de 2018, el pleno del Parlamento de Bizkaia aprobó, por unanimidad, una proposición no de norma para instar al Gobierno foral a crear una “zona de seguridad” en Artxanda en donde se prohibiera la caza, ya que en el pasado los vecinos habían relatado que “pasaban miedo” por las batidas que se hacían en la zona.

La responsable foral ha explicado que la Diputación ajustará, a la legalidad vigente, la creación de esta zona de seguridad por medio de la orden foral 1388/2020. Dicho espacio no tendrá las mismas especificaciones que la que planteaban los vecinos inicialmente, si bien la propuesta foral, que ha sido frenada en seco por el estado de alarma, se “reactivará” a partir de esta misma semana. Su propósito es el mismo: “garantizar la seguridad de las personas y los bienes” en el entorno de Artxanda.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

Los grupos de la oposición se han congratulado de la medida, si bien han lamentado que la orden foral llegue “tarde”, ya que los vecinos vienen reclamando una actuación “desde el año 2016” ha recordado Xabier Benito, de Elkarrekin Bizkaia. Por su parte, la representante de EH Bildu Iratxe Arriola, ha hablado de “indefensión y ninguneo” al que se han visto sometidos los vecinos de Artxanda por parte de la Diputación. Es “compresible” que los trámites administrativos se alarguen, pero “no tiene ninguna justificación que no se informe a la ciudadanía de los pasos que se van dando”, algo que ha negado Unzueta. “Se han dado contactos y reuniones en todo este tiempo”, ha dicho.

#### TALA DE ÁRBOLES JUNTO AL VERTEDERO DE JATA

Por otro lado, la responsable foral ha informado de la “paralización” de un permiso para la tala de árboles en dos parcelas de terreno situados junto al vertedero de Jata. El grupo Ekologistak Martxan alertó a mediados de mayo, según ha recordado Xabier Benito, de Elkarrekin Bizkaia, del “riesgo ambiental” que iban a ocasionar los trabajos de movimiento de tierras y tala de arbolado en las proximidades de este vertedero denunciado por contaminación de lindane. El grupo ecologista apuntó, según Benito, que la presencia de este contaminante podría afectar al personal trabajador encargado de la tala, manipulación, transporte y usos posteriores de la madera.

Unzueta ha explicado que su departamento ha solicitado al Gobierno Vasco un informe previo para ver si las empresas tuvieran que tomar “alguna medida de protección” para realizar unos trabajos que se encuentran “paralizados”; informe que “a día de hoy, no ha llegado”.

#### NUEVA LIMITACIÓN DE VISITAS EN GAZTELUGATXE

A pregunta de Elkarrekin Bizkaia, Unzueta ha anunciado que la Diputación no aplicará la limitación de visitas de “3.024 personas/día” en Gaztelugatxe que fue anunciada por su departamento antes de la declaración del estado de alarma. Las medidas de distanciamiento social han obligado a la Diputación a “suspender” esta medida y a estudiar un nuevo planteamiento para el acceso a la Ermita de San Juan de Gaztelugatxe que respete las directrices de protección sanitarias. Unzueta ha avanzado que las limitaciones, que están en estudio por parte de los técnicos, serán “más restrictivas”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Asimismo, la responsable del departamento de Sostenibilidad y Medio Natural ha explicado también que, debido al estado de alarma, la Diputación ha tenido que “priorizar” a los agricultores profesionales de los que no lo son, en la valoración de los procedimientos habituales para la certificación y cobertura de los daños ocasionados por jabalíes en explotaciones vizcaínas. Aún así, ha advertido de que recobrada la normalidad se atenderán “todas” las denuncias que han sido presentadas, “pero eso no quiere decir que todas las explotaciones sean beneficiaras” de las ayudas forales.